



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

IVAP

1. Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko2
2. 2023-2024ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia4
3. «Jesús María Leizaola» 2023ko saria, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako6
4. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak.....8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 3koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVIII. (47) Ikastaroa (2023-2024)» egiten duten ikasleei.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia:

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 3koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVIII. (48) Ikastaroa (2023-2024)» egiten duten ikasleei. BOPV 95, 2023eko maiatzaren 22

Esleipena:

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 5koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako XLVIII. (48) Hirigintza ikastaroan aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egitekoa den diruz lagundutako praktikaldia» ikasleei esleitzen baitzaie. BOPV 134, 2023ko uztailaren 14

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen du Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroa, eta 2022-2023 ikasturtean erakundeetan eta/edo enpresetan 300 ordu inguruko praktika-aldia antolatu zuen hirigintza-arloan 48 hilabeteko eskarmentua baino gutxiago zutenentzat. Guztira, 22.000 euroko aurrekontu-zuzkidura erabili da (Gizarte Segurantzako gastuak barne). Laguntza bakoitza ez da sekula 2.222,22 eurotik gorakoa izango.

Praktika-aldiaren helburu nagusia: Hirigintzari buruzko ikastaroa (2022-2023) egin duten ikasleek hirigintzaz ikasitakoa erakunde publikoetan eta/edo enpresetan aplikatzea, han hiru hilabeteko praktikak eginez.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hala, harreman estuagoa lortzen da hirigintza- lurralde- eta ingurumen-arloetan langile espezializatuen beharra izan dezaketen zentro eta profesionalekin, baita erakunde publiko eta pribatuekin ere.

Ikasleek jarduera erdi-profesionala garatzen dute, eta aukera izaten dute erakunde publikoetan "in situ" ezagutzeko zertan den eta zelan kudeatzen den hirigintza. Horretarako, aholkularitza-lanetan ibiltzen dira eta proiektu profesional batean parte hartzen dute hiru bat hilabetez (urritik abendura arte). Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak dauzka Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroko ikasleentzat, praktika-aldia egin aurretik ez baitute eskarmenturik hirigintza-kontuetan.

Ikasturte honetarako eskaera bakarra egin da. Dirudienez, administrazioetan sartzeko prozesu asko deitu direnez, eskaera gutxiago egin dira, ikasleak prozesuak prestatzen ari direlako edo denbora horretan administrazioan sartu direlako.

Gauzatutako aurrekontua:

Aurreikusitakoa	Gauzatutakoa	laguntzak
22.000	0€	0

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru-laguntza praktiketarako	9	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2023-2024ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 3koa, IVAPeko zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita merezimendu-lehiaketa baterako Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko 2023-2024ko aldirako bi dirulaguntza emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperresteka)

Deialdia

Ebazpena (hutsik uztekoa, lehenengo fasean)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza honen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerlanak egitea eta ikerlan horiek adiera ematea, administrazioak eta gizarteak bere ekarpenak jasotzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023-2024ko deialdian bost ikerketa-proiektu aurkeztu dira.

Ezin da positiboki baloratu laguntzen deialdia. Nahiz eta, aurreko deialdian ez bezala, ikerketa-proiektu kopuru handiagoa aurkeztu den, horietako bat ere ez da laguntzaren lehen fasearen esleipenduna izan, deialdian ezarritako gutxienerako puntuazioa ez lortzeagatik.

Balorzio Batzordeak egindako balorazioarekin bat etorritik, IVAPeko zuzendariaren 2023ko urriaren 24ko ebazpenak lehen fasean esleitu gabe utzi zituen aurreikusitako bi laguntzak.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Argitaratutako ikerlanen ehunekoa, esleitutako dirulaguntzei dagokienez (ikerketa sustatzeko dirulaguntzen deialdian)	100%	0%
Deialdian onartutako eskaerak, dei eginiko laguntza bakoitzari dagokionez.	3	1,66
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan diru-laguntzei uko eginiko ehunekoa.	0%	0%
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan liburutegian gordetako ikerlanen ehunekoa.	-	0%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Jesús María Leizaola» 2023ko saria, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 22koa, IVAPeko zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita «Jesús María Leizaola» 2023ko saria, euskal autonomia eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten ikerlanetarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia

Ebazpena (hutsik uztekoa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2023ko «Jesús María Leizaola» sariaren helburua da euskal autonomia, euskal autogobernua edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua, edo/eta globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren erronken edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa buruz egindako ikerlanak sustatzea eta zabaltzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Sariak:

- Ikerketa sustatzen du hainbat azterketa-ikuspegietatik: euskal autonomia, euskal autogobernari, EAEko lurralde-antolamendua eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.
- Arlo horietan egindako ikerlanen zabalkundea bultzatzen du.

Leizaola 2023 Sariaren edizioa ez da bereziki arrakastatsua izan. Zortzi monografia aurkeztu badira ere, horietako bakar batek ere ez du saririk jaso, ez saririk, ez akzesitarik. Horietako hiru, gainera, ez dira onartu, Sariaren deialdian eskatutako baldintzaren bat ez betetzeagatik.

Edonola ere, Epaimahaiak deialdira aurkeztutako obretako baten kalitatea eta interesa baloratu ditu, eta argitaratzeko proposatu du, saria merezi ez badu ere. Lan horren izenburua "Concierto/Convenio: El sistema financiero y tributario de las Haciendas Forales " da.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	5	8
Leizaola saria ematea	1	0
Leizaola saria akzesita ematea	1	0
EAEtik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	1	2
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	1
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	%100	%62,5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 12koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez laguntzak deitzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303611e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzeak, eta, bestetik, EAeko administrazio guztiek aurrean dituzten aurrekontu-zailtasunak aintzat hartzeak, horiexek bultzatzen gaituzte Diru-laguntza Programa hau abian jartzera.

Prestakuntza-planei dagokienez aurkeztutako eskaerek behera egin dute. Hala ere, prestakuntza-planetan parte hartu duten parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, goranzko joera dagoela hautematen da.

Prestakuntzako beharrian handiagoak egokitu zaizkigun honetan, zer eta baliabide ekonomikoak oro har oso murriztuta daude administrazio guztietan, gastuak eta inbertsioak gutxitu beharrean baikaude.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Prestakuntza-planen kopurua	32	26
Parte-hartzaileen kopurua	82.000	85.700
Programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	120	58